



# Datuen gobernua aro digitalean

## Erronkak eta aukerak






# Datuen kalitatearen kudeaketa



# Datuen kalitatearen kudeaketa

Datuen kalitatearen kudeaketak helburutzat du datuak dagokien **helbururako egokiak direla eta erabiltzaileen beharrak asetzen dituztela** bermatzea, eta horretarako plangintzaz, kontrolaz eta inplementazioaz arduratzen da, baita teknikak aplikatzeaz eta prozesuak gauzatzeaz ere.








## Datuen kalitatea ez da doakoa.

Helburuaren arabera, datuek kalitate handiagoa edo txikiagoa izan beharko dute.



# Guztion kontua


**Datuak kudeatzeko diziplina guztiek hobetzen dute** datuen kalitatea, eta guztiek izan behar dute helburutzat erakundeko datuek kalitate handia izan dezaten lortzea.

Datuen kalitatean haiekin interakzioan dauden **pertsona guztiek dute eragina**, ez soilik datuen kalitatearen kudeaketan funtzio edo erantzukizun espezifikoak dituzten pertsonak.




# Helburuak

- Datuak **une bakoitzean** duten funtziora egokitzea → **EGOKITZEA**
- Datuen kalitatea kontrolatzeko **arauak, baldintzak eta zehaztapenak** finkatzea, datuen bizi-zikloaren parte gisa → **KONTROLATZEA**
- Datuen kalitate-mailak neurtu eta gainbegiratzeko eta horien berri emateko **prozesuak zehaztu eta aplikatzea** → **NEURTZEA**
- Prozesuak eta sistemak hobetuz datuen kalitatea hobetzeko **aukerak identifikatu eta sustatzea** → **HOBETZEA**



# Negozioaren motibatzaileak



Erakundeko datuen **balioa**  
eta horiek erabiltzeko  
aukerak areagotzea.



Kalitate eskaseko datuekin  
lotutako **arriskuak eta**  
**kostuak** murriztea.



Erakundearen **ospea**  
babestu eta hobetzea.



Erakundearen **efizientzia eta**  
**produktibitatea** hobetzea.

## High Quality Data

Beren datuetatik balioa lortzen duten erakundeek kalitate handiko datuak behar dituzte.



# Datuen kalitatea kudeatzeko 5 elementu erabakigarri



**Denak dira beharrezkoak, baina ez maila berean!**

# 1. Irismena

**Etengabeko ekimena** da, eta pixkanaka lortzen da: proiektuz proiektu, erabilera-kasuz erabilera-kasu.

## Baldintzak:

- Programa, proiektu edo produktuaren **irismena** eta aplikazio-metodoa zehaztea.
- Datuen kalitate-**baldintzak** biltzea.
- **Interes-taldeak** inplikatzeari: esperotako emaitzen eta lehentasunen gaineko adostasuna bilatzea.
- Alde interesdunen arteko **lankidetzak** beharrezkoa da.



**Jarri arreta enpresan inpaktu handiena izango duten datuen kalitatearen puntu gatazkatsuetan.**

# Datuen kalitaterako programa bat abian jartzeko ohiko erabilera-kasuak



## Eragiketak

Salmentak, finantzak,  
prozeduren tramitazioa



## Datuen integrazioa

Datuen  
lotura/elkarreragingarrita  
suna



## Migrazioak

Cloud, datu-baseen  
sistema, aplikazioak



## Maisu-datuen kudeaketa

Bezeroak, produktuak,  
langileak



## Datuen gobernu

Araudia betetzea,  
pribatutasuna...



## Analitikoa

Bezeroa 360, Produktua  
360




## AI & Machine Learning

Algoritmoen eta ereduen  
trebaketa

## 2. Gobernua


Gobernu-eredu bat zehaztea, datuen balorazioan, sorreran, kontsumoan eta kontrolean portaera egokia bermatzeko **rolak eta erantzukizunak** jasoko dituen.

Erakunde osoan datuen kalitatea bermatuko duen **datu-kudeaketarako esparru korporatiboa** zehazten du.



### 3. Prozesuak

Datuen kalitaterako ekimen bat **ez da ahalegin bakan bat**, datuen bizi-ziklo osoan zehar egiten diren zenbait lan baizik.



Hasi datuen kalitatea neurtzen datuen profila zehaztuz.

# Datuek kalitatea neurtzea **zenbait** **alderditan**



## **Eskuragarritasuna:**

Datuak eskura daude; erraz berreskuratzen dira, eta erakundeko prozesuetan integratzen dira.



## **Funtsa:**

Zenbait tokitako datuak antzeko moduan adierazten eta egituratzen dira.



## **Eguneraketa:**

Datuak erakundearen beharrak asetzeko adinako maiztasunez eguneratzen dira.



## **Zehaztasuna:**

Datuen balioak zehaztasunez islatzen ditu datuek irudikatu nahi dituzten mundu errealeko objektuak edo gertaerak.



## **Doitasuna:**

Datuak enpresa-prozesuek behar duten doitasunarekin erregistratzen dira.



## **Bakartasuna:**

Datuen erregistro bakoitzak bakarra izan behar du, hura identifikatzeko moduaren arabera.



## **Osotasuna:**

Erregistroetan ez da eremurik falta, eta instantziarik ere ez datu-multzoetan.



## **Garrantzia:**

Datuak enpresako prozesu edo erabaki bati edo gehiagori aplikatu dakizkieke.



## **Baliozkotasuna:**

Datuak bat datoz definituta dauden enpresako arau/baldintzekin, eta iturri egiaztagarri batetik datoz.

**Integritatea, konfiantza, erabilgarritasuna...**

Aukeratu zure datuetarako eta erabilera-kasuetarako garrantzitsuak diren alderdiak bakarrik.

## 4. Rolak eta erantzukizunak

- Datuen kalitatea **taldeko kirola** da, eta hauek parte hartzen dute: IT arloa eta negozio-arloa.
- Argi zehaztu behar dira funtzioak eta erantzukizunak
  - **Gobernua**
- Trebetasunak eta gaitasunak garatu behar dira
  - **Data Literacy**




## 5. Teknologia

- Ezinezkoa da datuen kalitaterako ekimenak tresnarik gabe hedatzea.
- Ezin konta ahala datu, prozesu, aplikazio, rol, erantzukizun...
- Excelaren ordeztatzen datuen gobernurako tresna espezifiko bat erabili behar da, datuen kalitatea ziurtatzeko.



# Ohiko erronka batzuk




# Ikasitako lezioak



## Zerk EZ DU FUNTZIONATZEN:

- Big Bang proiektuak
- Nagusiki datuen garbiketan zentratuak
- IT buru duena
- Datuen kalitatearen eskuzko tratamendua
- Datuen kalitaterako tresna ugari



## Zerk FUNTZIONATZEN DU:

- Proaktibitatea — Ez itxaron arazoak sortu arte.
- Negozio-arloa da buru, eta IT arloaren laguntza jasotzen du.
- Administratzaileek ardura handiz jokatzen dute.
- Proiektuz proiektu egiten da, pixkanaka.
- POC edo kontzeptu-probak egiten dira fabrikatzaileekin (EZ demoak)

# Datuen kalitate txarraren arriskuak

- Behar bezala fakturatu ezin izatea.
- Bezeroentzako arreta-zerbitzurako deiak ugaritzea eta konponbideak emateko gaitasuna txikitzea.
- **Diru-sarrerak eta bezeroak galtzea.**
- Negozio-aukerak galtzea.
- Fusioetan eta erosketetan integrazioa atzeratzea.
- **Iruzurrarekiko** esposizio handiagoa izatea.
- Datu okerretan oinarrituta hartutako enpresa-**erabaki txarren** ondorioz galerak izatea.
- Hedabideekiko esposizioa izatea.
- Erakundearen **ospea kaltetzea.**



# Datuen kalitatearekiko konpromisoak

1. Datuen kalitateari lotutako **helburuak** datuak kudeatzeko estrategiaren barruan **integratzea**.
2. Kalitate-**metrikak** ezartzea eta datuen profila zehazteko eta datuak garbitzeko plan bat sortzea.
3. Datuen kalitatea lortzeko praktikak erakunde osoan hedatzea, eta lehenetasuna ematea **metadatu**ei, **mais**u-datuei eta **erreferentzia**zko datuei.
4. **Datu kritikoak** identifikatzea, eta ziurtatzea eguneratuta eta osatuta daudela eta aurreikusitako erabilerarako behar besteko kalitatea dutela, ezarritako kalitate-atalaseen arabera.
5. Kalitatearen kudeaketan funtzioak edo erantzukizunak dituzten pertsonen **gaikuntza** bermatzea.
6. Datuen kalitaterako **prozedurak, estandarrak eta gidak** garatu eta ezartzea.
7. **Kalitatea** diseinuz **sustatzea** erakunde osoan.
8. **Etengabe hobetzea**.



# Diagnostikoa eta soluzioa.

## Adibidea

Zenbait kalitate- eta mapaketa-irizpideren kasuan arazo zehatzak daude:

| Kalitate-irizpidea | Arazoa                                                                                                                              |
|--------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Baliozkotasuna     | "Posta-kodea" eremuak 5 zenbaki oso eduki behar ditu.                                                                               |
| Bakartasuna        | Bi kale-erregistrok kale-kode ofizial berbera (INE-EIN) edo koordinatu berberak dituzte.                                            |
| Osotasuna          | Etxebizitza-erregistro batzuek ez daukate "kale-mota" eremua, eta, hortaz, ezin da identifikatu zer den: kalea, plaza, etorbidea... |

### SOLUZIOA

#### Iturrien sarreran datuen kalitatea aplikatzea



- Datu-iturri bakoitzaren kalitatearen eta arazoen berri ematea ahalbidetzen du.
- Helbide-maisuarentzat datuen maisu-iturri bat identifikatzeko aukera ematen du.
- Datu-iturrien jabeei hautemandako kalitate-arazoak jakinaraztea ahalbidetzen du.



#### Helbide-maisuari datuen gobernu aplikatzea (kalitatea, pribatutasuna eta bizi-zikloa)

- Gauzatutako datu-eraldaketa baliozkotzeko aukera ematen du.
- Datuak erabiltzeko irizpideak ezartzeko aukera ematen du.
- Negozio-esanahia edo -hitzak bateratzen ditu.

# Monitorizazioa. Datuen kalitaterako AK baten adibidea



## Datuaren Estatutua

# Zer diote datuen dekretuek KALITATEARI buruz?



### Jabetza eta erantzukizuna

Foru-sektore publikoa da datuen kudeaketaren eta kalitatearen arduraduna.



### Gardentasuna

Datuak behar bezala erabiltzeko behar adina informazio eman behar du.



### Jokabide-printzipioa

Neurriak hartu behar ditu, datuak hasierako fasean egiaztatzeko.



### Bakartasuna

Datu-iturri bakarra izan behar du: Foru Datuen Hiztegia eta Negozio Glosarioa.



### Fidagarritasuna

Gutxieneko kalitate-mailak ezarri behar ditu, eta monitorizatu eta ikuskatu egin behar ditu.

## Datuen gobernu-eredua

# Zer diote datuen dekretuek KALITATEARI buruz?

### Maila estrategikoa



#### CDO

- Kalitate-politika indartu eta sustatzea.
- FSP osoaren lankidetzaz lortzea.



#### Datuen arduradunak

- Esparru Korporatiboa aplikatzen dela zaintzea.
- Datuen kalitatea kontrolatzen eta betetzen aitzindari izatea.



#### Datuen gobernuaren arduraduna

- Datuak Kudeatzeko Esparru Korporatiboa zehaztea.
- Hori egokiro bete eta gauzatzen dela zaintzea.



#### Sailarteko Batzordea

- Sailek kalitatearekin lotutakoa aplikatzen dezaten sustatzea eta koordinatzea.

### Maila operatiboa



#### Datuaren Bulegoa

- Datuen kalitate-arauak zehaztea eta kontrolak garatzea.
- Datuen kalitatea monitorizatzea eta egiaztatzea.



#### Datuen administratzaileak

- Administrazioan dituzten datuen kalitate-egoera ebaluatzea.
- Akatsen zuzenketa gainbegiratzea.



#### IT arloko laguntza (Lantik)

- Datuen kalitatea kudeatzeko hardwareak eta softwareak implementatzea.
- Datu-proiektuak bideratu eta gauzatzea.



#### Sailarteko Batzorde Teknikoa

- Datuen kalitateari lotutako helburuak proposatzea.
- Txosten, proposamen eta ekintza zuzentzaileak prestatzea.

# Odola giza gorputzean denaren pareko dira datuak balio-katean.



Sarrerak



Prozesuak



Salmentak




Marketina



Zerbitzuak

Kalitate handiko datuek mantentzen dute osasuntsu erakundea!



# DataBarre

